

Xabier Gereño eta Euskaltzaindia

Xabier Gereño, oro har, euskal kulturaren eta bereziki euskalgintzan nor izan bada, Euskaltzaindiaren barruan ere izan zen zerbait. Hori da, gaur eta hemen, labur bilduz, jorratuko ditugun zertzelada zenbait.

1965eko irailaren 25ean izan zen euskaltzain urgazle izendatua, hain zuzen, Jose Maria Lojendio euskaltzainburu zen garaian. Jadanik, Xabier, frankismo garai gogorak izan arren, kultura arlo askotan mugitzen zen, hala nola, txistulari bezala, euskal kantu munduan, antzerkian, literaturan eta abar.

1968ko ekainaren 28, 29 eta 30ean, Juan San Martinek, Gerediaga Durango Merindadeko Adiskideen elkarteari eskatu zion, Durangalde barruan, Hego Euskal Herriko euskal idazleen jardunaldiak antolatzea, konturatzen bai zen Gipuzkoan ezin zitezkeela egin, probintzia “salbuespen egoeran” zegoelako. Muga mugako Ermuko eskola profesionalean antolatu genituen, txostenetarikoa bat hau zelarik: “Idazleen alkartasun bat sortzea”. San Martinek aurkeztu zuen, eta bera eta gure Xabier Gereño, orduan euskaltzain urgazlea, gelditu ziren behar izan urratsak emateko. Bien ahaleginak ez ziren nahikoa izan, egoera politikoak ez zuelako aukerarik ematen. Hori bai, 1980 hamarkadaren hasieran, Euskal Idazleen Elkarteak gauzatu zen, orduan ere Euskaltzaindiaren eskutik, partaide izan zirelarik, besteak beste, Xabier Gereño eta Jose Antonio Arana, Juan San Martinek, Jagon sailburu legez eraman zuen ardura akademikoa.

1980an, hain zuzen, maiatzaren 30ean egindako hileroko batzar-agiriak dioenez, honako erabakia onartu zen, hots: “*GOIZEKO BILKURAREN BERRI. Euskaltzain osoen bilkuran Xabier Gereño egun erdiko lanerako diruzaintzan sartzea erabaki da. Beraren ardura, kontuak eramatea izango da*”. Zuzendaritzak, behar beharrezkotzat jo zuen, Juan Jose Zearreta, ekonomia eragileak laguntzaile bat izatea, zehazkiago, kontulari bat, zeren eta Juanjoren lana diru bila kudeaketara lerratu behar zela uste zuelako. Premia hori betetzeko Xabierrengana jo genuen, zeren eta bagenekielako, berak lan egiten zuen enpresa, Erandioko “La Areonáutica, S.A”, atek ixteko zorian zegoela eta nor bera baino, euskaltzain urgazlea, gainera, trebeagoa!. Ez zuen, ordea, egun osoko jarduna hartzea nahi izan, arratsaldetan, bere idazle lanetan aritzea nahiago zuelako eta Euskaltzaindiari karga gehiegi ez ematearren. Akademiaren kontabilitatea antolatzeaz gainera, euskaraz prestatu zuen, berak sortutako eredia Euskaltzainditik kanpo ere, askorentzat balio handia izan zelarik. 1988an, jubilatuta arte, gure erakunde honetan lan egin zuen, ohi zuen trebezia eta dedikazioaz.

Henrike Knörr hautatu zuten Diruzain, euskaltzain osoek, 1984ko azaroaren 30ean eta, handik gutxira, Baztanen, Pello Salabururen sarrera hitzaldiaz batera, egin ziren IV Barne Jardunaldietan, hain zuzen 1985eko apirilean, diruzainaren proposamenez sortu zen Ekonomia Batzordeko kide izendatu zuen Euskaltzaindiak. Urte berean, irailaren 26an, erakunde honek duen eraikuntza ondare bakarra, hots, Etxebarri herriko gordailua inauguratu zuen Argitalpen Batzordeak, bilkura hartan, Xabier Gereñok, Rosa Mari Artza argitalpen banaketa eta gordailu arduradunaren laguntzaz, Euskaltzaindiaren argitalpenen inbentario zehatza aurkeztu zuen, titulu, ale kopuru eta diru balio eta guzti. Knörr beraren proposamenez ere, Ekonomia Batzordearen aholkularitza atala sortu zen, zeinetan, kideez gain: diruzaina, J. J. Zearreta, J.M. Vélez de Mendizabal, **X. Gereño** bera eta ni neu, aholkulari hauek izendatu ziren: Federico González, abokatu; Alberto Garate, ekonomialaria eta Miguel Angel Redondo, ekonomialaria. Azken hori, Lantarongo enpresa garrantzitsu baten, General Química Españolan, pertsonal buru zen eta Arabako Batzar Nagusietako ahaldun edo prokuradore jeltzalea. Redondo, sortzez deustuarra, Xabier bezala, azpibatzerde baten partaide izan zen, Euskaltzaindiaren langilego guztien lanpostu baloraketa bat prestatzeko eta lehendabiziko hitzarmen bat bideratuz. Aldundietariko bat edo Jaurlearitza erreferentziatza har zitekeen eztabaidatu zen eta aipatutakoaren harremani esker, besteak beste, Jaurlearitzako Enplegu zuzendariarengana jo eta administrazio amankomuna hartu zen eredutzat. Lan horretan, A. Garate eta J.J. Zearretaz gaine, deustuar biak aritu ziren, Redondo eta Gereño. Are gehiago, gure artxiboetara jo eta ziurtatu dut, Xabier Gereño izan zela, beste langile batekin batera, lehen Batzorde Parekideko langileen ordezkarietariko bat, alegia, kasu bietan, lan ona egin zuelarik, erakundearen mesedetan.

H. Knörren diruzaintzaren ondoren, Juan San Martinenean ere jarraitu zuen Gereñok, bien eta Juanjo Zearretaren artean egindako kudeaketa onuragarriak banan banan zehaztea luze joko lukeelarik, argitalpen alorrean, bereziki.

Argitalpenetan, hain zuzen, urte askotan, Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan, Xabierrek bere anaia Josebarekin zeukan Cinsa argitaletxearen stand, Euskaltzaindiaren standaren (lehena, 1965etik, Gerediaga Elkartearen erabakiz eta Leopoldo Zugaza elkarterko lehen idazkariaren proposamenez) alboan jartzen zuen eta bien ardura ekonomikoa eramaten zuen. Gerediaga elkarterko zuzendaritza kide izan, lehen hamar urtetan, nahiz, 1969tik Euskaltzaindiko idazkariorde izan, beste ardura batzuetan. Lasai ibiltzeko aukera genuen stand bien ardura Xabierrek ondo

eramaten bai zuen.

Xabier, kontulariz langintza hartu baino lehenago edo geroago, eginkizun akademiko ugaritan parte hartu zuen, hala nola, 1972an, *Filateli Hiztegia*, 1972ko urtarrileko batzarrean, Euskaltzaindiari proposatua; Euskalarien Harremanak batzorde suntsikorrean; 1968an, Arantzazun eta, 1978an, Bergaran egindako bi biltzar famatuetan ere izan zen partaide; 1980an eta hurrengo urtean; Loiolan, 1981ean, egindako Euskaltzaindiaren II. Barne Jardunaldietan; Bizkai Aurrezki Kutxaren babespeko, Toribio Alzaga epai mahai zereginetan; oker ez banago, Euskaltzaindiaren aginduz Xabier Kintanak prestatuturiko *Merkatalgo Izendegian* lagundu zuen, 1982-84an; hilberri txosten hauek ere idatzi zituen: Xabier Peña, euskaltzain urgazlea (1981), Julita Berrojalbiz, ohorezko euskaltzaina (1999).

Une batez, Bizkaiko Aurrezki Kutxak, bere Kontseiluan leku bat eman zion Euskaltzaindiari. 1980ko azaroaren 28ko osoko bilkuraren batzar-agiriak dioenez, Xabier Gereño izendatu zen instituzio akademikoaren ordezkari legez. Beste maila apalagoko ordezkari eta nabarmendu bako kudeaketa franko zehazterik ez dugu, gaurkoz. Mereziko luke ordea, Xabier gizon apala eta isila baitzen.

Bururatzeko, Arautegiaren 39. artikulua dioena betez, hots, “*Euskaltzaindiaren ustetan euskarari mesede bikainak egindako laguna*” zelako, Euskaltzaindiak, 1998ko apirilaren 24an euskaltzain ohorezko izendatu zuen.

Iazko apirilaren 8an hil zitzaigun Xabier Gereño, hainbeste lanetan lankide; kudeaketa zereginetan, laguntzaile; herrigintza arloetan, burkide; Euskaltzaindian etxe etxeko. Iasmina Gorroño eta biok, gure Hizkuntza Akademiaren Historiarako hari elkarrizketa luze bat egitea programatua genuen, baina, tamalez, ez ginen, garaiz iritsi. Izango zuen zer konta. Horixe berori esan zion Iasmina lankideari Iñaki Beobide euskaltzain urgazleak, beroni egindako elkarrizketaren transkribaketak dioenez: “... eta, *Jose Luisi esandakoa, niri Argizaiola emango didate* (egun horretan, abenduaren 4an, iluntzean, Gerediaga Elkartek, 46. Euskal Liburu eta Disko Azokaren ospakizunez, “Argizaiola Saria” eman bai zion), *Xabier Gereño saririk gabe gelditu delarik. Eta berak mugitu zituen bazter guzti guzti guztiak...*”

Bilbon, 2012eko urtarrilaren 27an.

Jose Luis Lizundia Askondo